



Heineken Jazzaldiaren eragin ekonomikoa eta soziala

Jaialdiari buruz 2014an Ikerlanek egindako azterlan batek honako hau nabarmentzen du:

Jazzaldiak –hiriko musika-gertakizun handienetakoa– eskaintza espezializatua eta masei zuzendutakoa konbinatzen ditu, cocktail arrakastatsu bat osatuz. Hala, Estatu osoko erreferentzia bihurtu da bere esparruan. Baina, horrekin batera, hiria kanpora proiektatzeko tresna garrantzitsu ere bilakatu da, Donostiako udaren animatzaile eta hirian inpaktu ekonomikoa ukaezina izateaz gainera.

Jazzaldiak hirian duen inpaktu ekonomikoa ikaragarria da, azterlan horrek erakusten duen bezala:

Antolakuntzaren zuzeneko gastuek eta Jazzaldian parte hartzen dutenen laguntza-lanei dagozkienek, multzo bakarrean bilduta, 11.138.637 euroko Guztizko Ekoizpena edo Inpaktu Agregatua osatzen dute.

Baina, hori baino garrantzitsuagoa, ikus-entzuleen gogo-betetze maila ezin hobe da:

Bertaratuen gogo-betetze terminoetara etorrira, gogo-betetze horren maila, ia sistematikoki, 8tik gorakoa da, 1etik 10era arteko eskalan, aztertu diren segmentu guztietan.

Jazzaldiaren inpaktu nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dituzte parte-hartzaileek: turismoa erakartzea eta udako festa-giroa sortzea adierazi dute 10 ikus-entzuleetatik 8 baino gehiagok. Ezaugarri nabarmen gisa aipatu dira, orobat, musika-zaletasuna eta kultura musikala sustatzeko egiten duen lana (% 73,8) eta hiriari egiten dion ekarpen ekonomikoa (% 72,4).



Garrantzi handikoak dira, era berean, kanpora begirako oihartzuna eta ikus-entzule atzerritarrentzat duen erakargarritasuna, izan ere, azterlan beraren arabera:

Bertakoak dira ikus-entzuleen % 42,8 (% 33,9 Donostiakoak eta % 8,9 Gipuzkoako gainerako herrietakoak); Estatuko gainerako herrialdeetakoak dira % 38,7 eta atzerritarrak, azkenik, % 13 inguru.